

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ogasun eta Finantza Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 83/2018 FORU DEKRETUA, ekainaren 26koa, Ogasun eta Finantza Sailaren Egitura Organikoari Buruzko Araudia aldatzen duena; abenduaren 13ko 197/2011 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori.

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 13ko 197/2011 Foru Dekretuak Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onartu zuen, eta, horrenbestez, sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen, sailari tributu-antolamendu foralean ezarritakoaren arabera dagozkion eginkizunak betetzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 15eko 94/2012 Foru Dekretuaren bidez (xedapen gehigarria), aldatu egin zen egitura organikoari buruzko araudi hori; izan ere, zehazten zen ulertu behar dela Zergadunari Laguntzeko Zuzendariordetzari egiten zaizkiola egiturari buruzko horretan Zergak Kudeatzeko Zuzendariordetzari egiten zitzaizkion aipamenak.

Horrez gainera, Bizkaiko Foru Aldundiaren urriaren 7ko 111/2014 Foru Dekretuaren eta 1/2016 zein 119/2016 Foru Dekretuen bidez, berriro ere aldatu zen egitura organikoari buruzko araudi hori. Izan ere, dekretua onetsi zenetik zenbait aldaketa gertatu ziren arau batzuetan; ondorioz, egokitzapen zehatz batzuk egin behar ziren dekretuaren arauketan, eta atal zein administrazio-unitate batzuk berrantolatu behar ziren eta haien eginkizun jakin batzuk birbanatu.

Mantentzeari buruzko sailtako eskumenak Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailean zentralizatzeko proiektua dago, eta horrek dakar Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoaren araudia —abenduaren 13ko 197/2011 Foru Dekretuaren bidez onetsi zena— aldatzea, zentralizazio horretara egokitzeko.

Adierazi behar da foru-dekretu honen izapidetzea lege eta dekretu hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa; Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2/2017 Foru Dekretua, 2017ko urtarrilaren 17koa, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duena.

Ondorioz, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak proposatuta eta Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2018ko ekainaren 26(e)ko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— *Abenduaren 13ko 197/2011 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoari buruzko araudia aldatzea.*

Abenduaren 13ko 197/2011 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoari buruzko araudian, aldaketa hauek egiten dira:

Bat. 14. artikuluko Hiru zenbakiko c) letra kentzen da:

Bi. Aldatu egiten dira 37. artikuluko 1, 5, 7, 8, 17 eta 18. artikulukoak, eta honela geratzen dira idatzita:

«1. Giza baliabideak kudeatzeko prozesua zuzentzea eta gai horri buruzko gaitako planak egitea, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailekin elkarlanean.»



«5. Laneko arriskuen prebentzioaren eta lan-osasunaren arloan sail honetan eman beharreko xedapenak koordinatzea eta aplikatzea, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailarekin batera.»

«7. Lanpostuen trebakuntzako urteko planak programatu eta kudeatzea, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailarekin elkarlanean.»

«8. Sailean egindako jarduketak euskalduntzea, Euskara Kultura Sailarekin elkarlanean.»

«17. Sailaren bulegoak kontserbatzeko eta mantentzeko neurriak hartzea, beste foru sail batzuek arlo horretan duten eskumena ahaztu barik».

«18. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailarekin harremanetan jartzea Sailaren instalazioen mantentzearekin zerikusia duten lanak kudeatzeko».

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetako Lehena. — *Indarrean jartzea*

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Azken Xedapenetako Bigarrena. — *Gaikuntza*

Ahalmena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bilbon, 2018ko ekainaren 26an.

El diputado foral de Hacienda y Finanzas,
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

El Diputado General,
UNAI REMENTERIA MAIZ